# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko maiatzaren 31 | 79. ZK.

**A U R K I B I D E A**

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetzea (3. or.).

—11-24/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak ezetsi du (3. or.).

—11-24/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Prostatako Minbiziaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta elkartasuna adierazten baitie prostatako minbizia duten pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-24/POR-00209. Galdera, ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (5. or.).

—11-24/PES-00253. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (5. or.).

—11-24/PES-00254. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoen gidari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00255. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00256. Galdera, etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktuetarako laguntzei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00257. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzen irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00258. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntza-produktuei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (9. or.).
—11-24/PES-00259. Galdera, KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).
—11-24/PES-00260. Galdera, ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
—11-24/PES-00261. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00262. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00263. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00264. Galdera, Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskainitako plazei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00265. Galdera, KIDEAK zerbitzuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00266. Galdera, fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00267. Galdera, bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitza-tokiei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00268. Galdera, dirulaguntza publikoekin egindako fatxada-zaharberritzeei eta inguratzaile termikoei buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (16. or.).
—11-24/PES-00269. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
—11-24/PES-00271. Galdera, genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
—11-24/PES-00272. Galdera, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (18. or.).
—11-24/PES-00273. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (19. or.).
—11-24/PES-00274. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (19. or.).
—11-24/PES-00275. Galdera, Polizia-etxe berriaren proiektuari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (20. or.).
—11-24/PES-00116. Galdera, traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## 11-24/MOC-00042. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan

*KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

2024ko maiatzaren 27an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Kultura, Kirol eta Turismo Batzordean izapidetu dadin Geroa Bai talde parlamentarioko Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita emakumeek kirola egitea sustatzeko ekintzak bultzatzen eta egiten jarrai dezan. Mozioa 2024ko martxoaren 27ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-24/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan

*INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Batzordeak, 2024ko apirilaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Ana María Elizalde Urmeneta andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita proiektu bat taxutu dezan, industria eolikoaren sektorean isuri garbiak zero izanen dituen industria baterako europar akademia bat ezartzekoa Nafarroan. Mozioa 2024ko apirilaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-24/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Prostatako Minbiziaren Mundu Egunaren ospakizunarekin, eta elkartasuna adierazten baitie prostatako minbizia duten pertsona guztiei

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du ekainaren 11n ospatzen den Prostatako Minbiziaren Mundu Egunarekin eta elkartasuna adierazten die prostatako minbizia duten pertsona guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak gaixotasun horren eta bere ondorioen ikerketa babesten du.

3. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die familian prostatako minbiziaren aurrekariak dituzten gizon guztiei eta pixako sintomak dituztenei kontsulta egin diezaioten oinarrizko osasun-laguntzako medikuari.

4. Ekainaren 11n, Nafarroako Parlamentuak urdinez argituko du bere fatxada, prostatako minbizia duten pertsonei bere babesa agertzeko”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**F saila:**
**GALDERAK**

## 11-24/POR-00209. Galdera, ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, ezgaitasuna baloratzeko ekipoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Desgaitasuna baloratzeko ekipoak noiz eta zenbat pertsonarekin handituko dira, legeak ezartzen duen 6 hilabeteko epea betetzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00253. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruzkoa

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko sentsibilizazio-pilulei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planaren 21. orrialdean honako ekintza hau jasotzen da: “Hizkuntza-eskubideei eta hizkuntzaren eta kalitatearen arteko harremanari buruzko sentsibilizazio-pilulak igortzea langile guztiei”.

Prestatu al dira jada pilula horiek?

Aurreikusita al dago Euskarabidearen webgunean edo kasuko departamentuaren webgunean argitaratzea hori?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

## 11-24/PES-00254. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoen gidari buruzkoa

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planeko irizpide linguistikoen gidari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren 2023-2027 Hizkuntza Planaren 21. orrialdean honako hau jasotzen da: “Herritarrei ele biko erantzuna emateko ahozko hizkuntza irizpideen gida eman eta hura erabiltzeko trebatu”.

Taxutu al da jada gida hori?

Baiezkoan, posible al da horren kopia bat eranstea?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

# 11-24/PES-00255. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruzkoa

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak egindako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren II. Hizkuntza Planeko mezuak edo jakinarazpenak ele bitan bidaltzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Lurralde Kohesiorako Departamentuaren Hizkuntza Planaren 23. orrialdean besteak beste jasotzen da: “Herritar edo erakunde jakin bati zuzendutako mezuak (sms, isun, gutun...) edo bestelako jakinarazpenak bi hizkuntzatan bidali” eta “Herritar edo erakunde batengandik jasotako komunikazioak euskaraz direnean, hizkuntzahautu hori errespetatzeko neurriak hartu”.

Azalduko ahalko litzateke horrek zer esan nahi duen? Herritar batek komunikazioak euskaraz, gaztelaniaz edo bi hizkuntzetan jaso nahi dituela adierazi ahal izanen du, edo gaztelaniaz egiten denean soilik errespetatuko da nahi hori?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

---

# 11-24/PES-00256. Galdera, etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktuetarako laguntzei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, etxebizitza partikularretarako laguntza teknologikoko produktuetarako laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat pertsonak eskatu zituzten 2022an etxebizitza partikularretarako laguntza-produktu teknologikoetarako laguntzak? Eta zenbatek 2023an?

Zenbat laguntza-produktu diruz lagundu ziren 2022an? Zenbat 2023an?

Zer aurrekontu bete zen 2022an deialdi honetarako? Eta 2023an?

Zenbat pertsonak jaso zituzten laguntzak 2022an? Zenbatek 2023an?

Zenbat pertsonari ukatu zitzaion laguntza 2022an aurrekontu-izendapenik ez izateagatik? Horietako zenbati eman zitzaien 2023an aurrekontu-izendapen berriarekin?

Zenbat pertsonari ukatu zaio laguntza 2023an aurrekontu-izendapenik ez izateagatik?

Zein izan da dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoa 2022an? Eta zein 2023an?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-24/PES-00257. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzen irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian etxebizitzen irisgarritasunerako aurreikusten diren laguntzei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat pertsonak eskatu dituzte 2023ko Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.2 neurrian aurreikusitako etxebizitzen irisgarritasunerako laguntzak?

Zein zen deialdiaren hasierako aurrekontua?

Zenbat pertsonak jaso dituzte dirulaguntza horiek?

Zenbat pertsonari ukatu zaio laguntza aurrekontu-izendapenik ez izateagatik?

Zein izan da dirulaguntzaren batez besteko zenbatekoa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-24/PES-00258. Galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntza-produktuei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurrian aipatzen den gidaritza ezartzeko laguntza-produktuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat laguntza-produktu jaso dira 2023ko Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Plan Operatiboko 27.3 neurriak aipatzen duen gidaritza ezartzeko? Identifikatu kopurua produktu-tipologiaren arabera.

Zein da produktu horien jatorria?

Non daude biltegiratuta produktu horiek gaur egun?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

---

## 11-24/PES-00259. Galdera, KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, KAIMZko langileen historia kliniko informatizatura sartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (INDAF) eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (SNS-O) berritu egin dute Kirolaren Ikasketa, Ikerketa eta Medikuntza Zentroan (CEIMD) kirolariei eta pazienteei kirol-medikuntzan eta ariketa fisikoan laguntzeko daukaten lankidetza-hitzarmena.

Nafarroako Gobernuaren informazio-oharrean honako hau adierazten da: "INDAFeko zuzendari

kudeatzaile Jorge Aguirrek eta SNS-Oko zuzendari kudeatzaile Alfredo Martínez Larreak sinatu dute hitzarmena, eta lau urteko indarraldia izango du, eta urtero luzatzeko aukera jasotzen du, eta, alderdiak ados jartzen badira, beste lau urtez luzatzeko aukera.

Hitzarmena eguneratzeak Historia Kliniko Informatizatuarekin lan egiteaz gain, akordioan Osasun Sistema Nazionaleko medikuek edo erradiologia muskuloeskeletikoko espezialistek parte hartzea ahalbidetuko dio CEIMDi. Horri esker, kirolariek arreta integrala jasoko dute, lesioak diagnostikatzeko prozesuak laburtuko dira edo erresonantzia magnetiko gisa proba batzuk egiteko beharra murriztuko da.

Azkenik, sindrome koronario akutua izan duten eta Arrisku Txikiko Errehabilitazio Kardiakoko Programarako hautagai diren pertsonen asistentzia ere hobetuko da hitzarmen honi esker. Hitzarmen horrek, halaber, paziente onkologikoentzako jarduera fisiko gidatuko eta indibidualizatuko programa bat biltzen du, eta zabalik uzten du gaixotasun kronikoak dituzten pazienteentzako beste espezialitate batzuetako beste programa batzuk gehitzeko aukera".

Hori dela-eta, parlamentari honek honako galdera hauek egiten ditu:

• CEIMeko zein langilek izango du programa horietara joaten diren pazienteen Historia Kliniko Informatizaturako sarbidea?

• Zer osasun-profesional arduratuko dira paziente horiek baloratzeaz?

• Nolakoa izango da pazienteak programa horietara bideratzeko prozedura?

• Zer profesionalek diseinatuko dute paziente horien errehabilitazio-programa?

• Zer profesionalek garatuko dute paziente horien errehabilitazio-programa?

• Nola egiten da programa horietan parte hartuko duten profesionalen kontratazioa edo hautaketa-prozesua eta zer profil profesional eskatzen dira?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

# 11-24/PES-00260. Galdera, ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruzkoa

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, ingurumenaren arloko delituen arloko polizia-lankidetzarako protokoloari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeak 2009ko ekainaren 30ean egindako bilkuran, polizia-koordinaziorako zenbait protokolo onetsi ziren, besteak beste, ingurumena babestekoa.

1. Zer lankidetza-mekanismo ezarri zen ingurumen-delituak ikertzeko eta jazartzeko, Foruzaingoak, Guardia Zibilak eta Polizia Nazionalak garatu zitzaten?

2. Data horretatik aurrera, aldatu al dira protokolo horren irizpideak eta prozedura operatiboak? Baiezkoan, zehaztu zeintzuk diren.

3. Aurreikusi al du Gobernuak Foruzaingoak esklusiboki jardutea Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuari eta eskumenari argi eta garbi eragiten dieten ingurumen-delituen ikerketan?

4. Zer erabaki hartu beharko lirateke Foruzaingoak esklusiboki jardun dezan Nafarroan ingurumen-delitu horiek ikertzen?

5. Zer akordio edo protokolotan oinarrituta jarduten du Guardia Zibilaren SEPRONAk Foru Komunitateko ingurumenarekin, hirigintzarekin edo lurralde-antolamenduarekin lotutako ordenamendu juridiko administratiboa ikuskatzeko eta kontrolatzeko berezko zereginetan?

6. Nafarroako Gobernuko departamentuek behar al dute SEPRONAren esku-hartzea Foru Komunitateko ingurumenarekin, hirigintzarekin edo lurralde-antolamenduarekin lotutako administrazio-araudia ikuskatzeko eta zaintzeko lan horietan?

7. Kasu horietan, zergatik ez da behar Foruzaingoaren Ingurumen Brigadaren jarduketa? Nori dagokio eskumena?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-24/PES-00261. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Cascanteko osasun-etxe berri baterako proiektuari eta obren hasieraren atzerapenari buruzko 00205 PES/11-24 galderari emandako erantzunean, kontratu-betebeharrak ez betetzeari buruz egin nuen galderari dagokionez, honako hau erantzun zidaten:

"Proiektuaren eta instalazioen definizioan Azpiegitura Zerbitzuko eta Tuterako Osasun Barrutiko teknikariek iradokitako zenbait doikuntzengatik luzatu zen entrega-epea, eta atzerapen hori ezin zaio egotzi erredakzio-talde horri".

– Zeintzuk izan ziren aipatzen diren doikuntzak?

– Nork eta noiz egin zituen? Idazkiaren kopia, posta elektronikoa edo erabilitako formula.

– Nork du doikuntza horiek egin behar izateko ardura, entrega-epean atzerapena eragin baitzuten?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00262. Galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren eta Joseba Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

– Inoiz bildu al zara Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin? Zenbat aldiz bildu zara eta nor egon da bileran?

– Zein izan da bileraren edo bileren helburua?

– Zer egunetan?

– Zer dela-eta joaten zen bilerara Joseba Antxon Alonso jauna?

– Aztertu al zenuen inoiz Alonso Egurrola jaunarekin Erripagañako udalez gaindiko plan sektorialaren aldaketaren gaia, AR-2ari eragiten diona?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## 11-24/PES-00263. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jardueren oroitidazkiko taulei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zein da "fakultatibo espezialisten" eta "beste fakultatiboen" arteko aldea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduera-memorietako tauletan eta zein motatako profesionalak sartzen dira kategoria batean edo bestean?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

# 11-24/PES-00264. Galdera, Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskainitako plazei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat eskainitako plazei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat plaza eskaintzen ditu Nafarroako Gobernuak etxerik gabeko pertsonentzat, udalaterpetxeak kontuan hartu gabe?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

# 11-24/PES-00265. Galdera, KIDEAK zerbitzuari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, KIDEAK zerbitzuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, KIDEAK-familia babesik ez duten gazte migratzaileei zuzendutako zerbitzuari buruzko galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

– Handitu al da plaza-kopurua? Hala bada, zenbat plaza sortu dira?

– KIDEAKek irizpideak aldatu al ditu? Orain arte hain ziren murriztaileak adin-tarteagatik, benetako bizilekuagatik, osasun-irizpideagatik, ibilbideak betetzeko irizpideagatik... non asko kanpoan geratu eta sartu zitezkeenen itxaron-zerrenda kroniko bihurtzen baitzuten.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

# 11-24/PES-00266. Galdera, fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, fase goiztiarrean detektatutako bularreko tumoreei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko Nafarroako programari buruzko zenbait adierazle jasotzen ditu Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren jardueren oroitidazkiak: tumoreen % 1 fase goiztiarrean (Tis, T1ab) eta gongoil-inbasiorik gabeko tumoreen ehunekoa (inbaditzaileen gainean).

Honako hauek dira bi adierazle horietarako 2022ko oroitidazkian ematen diren datuak: tumoreen % 26,04 fase goiztiarrean eta tumoreen % 74,13 gongoil-inbasiorik gabe. 2021ean, % 23,68 eta % 63,83; 2020an, % 24,34 eta % 65,56; 2019an, % 48,95 eta % 64,44, eta 2018an % 49,23 eta % 87,65.

Osasun Departamentuak zer justifikazio aurkitzen dio fase goiztiarrean detektatutako tumoreen ehunekoa jaitsi izanari 2018tik (% 49,23) 2022ra (% 26,04)?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

# 11-24/PES-00267. Galdera, bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitza-tokiei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, bazterketa handiko arriskuan daudenen egoitza-tokiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil bazterketa handiko egoitza-plazak handitzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00268. Galdera, dirulaguntza publikoekin egindako fatxada-zaharberritzeei eta inguratzaile termikoei buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, dirulaguntza publikoekin egindako fatxada-zaharberritzeei eta inguratzaile termikoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2022. eta 2023. urteetan laguntza publikoekin gauzatutako fatxadaren eta inguratzaile termikoaren birgaitze guztietatik, zenbat etxebizitzak lortu dute A edo B kalifikazio energetikoa birgaitzea amaitu eta laguntzak onartu ondoren?

Zein da fatxada eta inguratzaile termikoa birgaitzeko 2024ko urtarrilaren 1ean eskatutako laguntzen zenbateko osoa eta exekuziorako eskuragarri dauden laguntzen zenbateko osoa?

Nola bete nahi da Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 38. artikuluaren 2. apartatuan ezarritakoa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## 11-24/PES-00269. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuari eta REACT funtsei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

PES (11-24/PES-00206) galderari emandako erantzunari dagokionez, honako baieztapen hauek dokumentatzea eskatzen dut:

– "REACTek irailaren 30a baino lehen amaitu beharreko jarduerak egitea eskatzen zuen. Hasieran, ezarritako irizpidea honako hau zen: data horretan aurkeztutako eta onartutako obra-ziurtagirien zatian amaitu gabe zeuden obra-espedienteen gastua aurkez zitekeen ". Non jasotzen da irizpide hori eta zer dio zehazki? Dokumentuaren kopia.

– "Hala ere, laster baztertu zen aukera hori, hautagarritasun-irizpidea izan baitzen espedienteek guztiz amaituta egon behar zutela". Non jasotzen da irizpide hori eta zer dio zehazki? Dokumentuaren kopia.

– Noiz gertatu zen irizpide-aldaketa?

– Noren esku dago hautagarritasun-irizpideak ezartzea?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00271. Galdera, genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, genero-indarkeriaren biktimek etxebizitza babestua lortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Etxebizitza babestu bat lortzeko, genero-indarkeriaren biktimei exijitzen zaie genero-indarkeriaren biktima direla izatea aitorturik (Berdintasunerako Nafarroako Institutuak emandako agiria, alegia), nahiz eta jadanik eduki genero-indarkeriaren biktima izatearen aitorpena, Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoak emana.

Genero-indarkeriaren zenbat biktimak eskatu behar izan dute? Informazioa urtez urte xehakatuta jaso nahi dugu.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

---

## 11-24/PES-00272. Galdera, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Lehendakaritza Departamentuko inork bilerarik egin al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan Antxon Alonso Egurrola jaunarekin? Hala baldin bada, adierazi bileraren eguna, tokia, gaia eta nork parte hartu zuen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

# 11-24/PES-00273. Galdera, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko inork bilerarik egin al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan Antxon Alonso Egurrola jaunarekin? Hala baldin bada, adierazi bileraren eguna, tokia, gaia eta nork parte hartu zuen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

---

# 11-24/PES-00274. Galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko pertsonen eta Antxon Alonso Egurrolaren arteko bilerei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko inork bilerarik egin al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan Antxon Alonso Egurrola jaunarekin? Hala baldin bada, adierazi bileraren eguna, tokia, gaia eta nork parte hartu zuen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

---

# 11-24/PES-00275. Galdera, Polizia-etxe berriaren proiektuari buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Polizia-etxe berriaren proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Polizia-etxe berriaren proiektua dela-eta, zer epe darabil Nafarroako Gobernuak gogoan proiektua lizitatzeko? Eta obrak hasteko? Eta abian jartzeko?

2. Nafarroako Gobernuak nola finantzatuko du lurren erosketa eta proiektua egitea? Zein da aurreikuspen ekonomikoa?

3. Arangurengo Udalarekin sinatutako protokoloa iraungitzeak zer ondorio ekonomiko dakar proiektuari begira?

4. Beloson etxebizitzak eraikitzea eta polizia-etxe berria eraikitzea bereizteak zer ondorio ekonomiko dakar proiektuari begira?

5. Barneko kontseilariak zer esan nahi izan du adierazi duenean departamentuen antolakuntzan izandako aldaketek bi proiektuetan eragina izan duela?

6. Udalez gaindiko plan sektorialaren tramitazioa zergatik ez da baketsua izan, Barneko kontseilariaren hitzetan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

# 11-24/PES-00116. Galdera, traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko martxoaren 8ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, Ganberako Erregelamenduan xedatutakoaren babesean (11-23/PES-00116):

Zer polizia-azterketa egin du Barne Zuzendaritza Nagusiak traktoreen protesten ondorioz izandako istiluei buruz? Eskatzen da istilu horiek eta horien ondoriozko jarduketak zerrendatzea, baldin eta halakorik egon bada. Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko otsailean, Espainiako nekazarien elkarte nagusiek mobilizazioak egin dituzte herrialdeko hainbat tokitan, beren sektorerako hobekuntza jakin batzuk aldarrikatze aldera.

Foru Komunitatearen kasuan, protestak otsailaren 6an hasi ziren, eta gaur egun arte iraun dute; oraingoz, ez dira amaitu.

Ekintza horien artean, batez ere, errepideak, autobiak eta herri eta azpiegituretarako sarbideak moztu dituzte, eta trafikoa moteltzeko beste hainbat ekintza egin dituzte.

Beste mugimendu batzuk ere izan dira, eta aldizkakoak izan arren, tentsio handiko uneak eragin dituzte, hala nola joan den martxoaren 7an izan zena, nekazari talde bat Nafarroako Parlamentuaren egoitzara sartzen saiatu zenean.

Egoera horrek, berekin dakarren guztiagatik, krisia sortu du, eta hori kudeatzeko modu koordinatuan lan egin da.

Horretarako, aginte gune bat ezarri zen Nafarroako SOSen, eta bertan etengabeko ordezkaritza izan dute Barne Zuzendaritza Nagusiak, Larrialdietako, Prebentzioko eta Babes Zibileko Zerbitzuak, Foruzaingoak, Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak, Iruñeko Udaltzaingoak eta Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuak, Nafarroako gainerako udaltzaingoen ordezkari gisa.

Aldizka, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiko, Hezkuntza Departamentuko eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko arduradunak ere izan dira, baita osasun garraioko ordezkariak ere.

Mobilizazio handi samarrak izan diren egun guztietan egin dira bilerak, eta egunero mobilizatu da Nafarroako Gobernuaren helikopteroa, trafikoaren egoerari buruzko ahalik eta informazio gehien biltzeko, denbora errealean.

Polizia kidegoek eta ukitutako departamentuek etengabe kontrolatu eta jarraitu dituzte une bakoitzean gertatzen ari ziren gorabeherak, eta, horrela, trafikoaren arintasunari eusten saiatu dira, bai eta horiek herritarrengan eta oinarrizko zerbitzuetan duten eragina minimizatzen ere.

Ezin da alde batera utzi krisi hori ez dela esparru autonomikora mugatzen, baizik eta estatu osora zabaltzen dela, eta, beraz, eskala horretan ere baterako lana egin behar dela.

Ildo horretan, egunero parte hartu da koordinazio zentroan, maila nazionalean. Segurtasuneko Estatuko Idazkaritza da zentro horren buru, eta segurtasun indar eta kidego guztiek osatzen dute, Mossos d’Esquadra eta Ertzaintza barne, bai eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioak, Lurralde Politikako Ministerioak eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ere.

Foruzaingoari dagokionez, une oro izan du gogoan aurre egin behar zion mehatxuaren konplexutasuna; izan ere, Nafarroako bide sarea zabala denez eta bide azkarretarako sarbide ugari daudenez, oso zaila da trafikoaren arintasuna erkidego osoan bermatzea.

Ekintza asko ezin zirenez aurreikusi, plangintza egitea zaila izan da, eta, beraz, baita alternatibak aurreikustea ere. Hala bada, erabakiak arin hartu behar izan dira, gorabeherak gertatu ahala.

Horren harira, alde batetik, nekazaritza sektoreak partaidetza handia izan du aldarrikapenetan —zenbait jardunalditan zortziehun traktore mobilizatu baino gehiago zenbatu dira—, eta, bestetik, ez dago gondola kamioirik traktore kopuru horiek bideetatik kentzeko. Horregatik, une jakin batzuetan ezin izan dira ekintza arinagoak burutu.

Alderdi horiek kontuan edukita, elkarrizketari lehentasuna ematea erabaki da, beste edozein neurriren aurretik, ibilgailuak bideetan ibilgetuta gera ez zitezen. Izan ere, egoera horrek trafikoa igarotzea bideraezin bihurtuko zukeen, alegia, une jakin batzuetan itxaron behar izan dena baino denbora luzeagoan itxaron beharko zen.

Hortaz, traktore gidariekin komunikazio arina izaten saiatu da uneoro, trafikoaren arintasunari kalte gutxien egiten dioten bideak erabil zitzaten, bide horietan geldi ez zitezen, auto-ilarak aldizka desager zitezen, besteak beste.

Kezkarik handiena bide segurtasuna bermatzea izan da, eta norabide horretan bideratu dira jarduketak. Egindako ahaleginaren ardatza auto-ilarak seinaleztatzea, bide alternatiboak eskaintzea, auto-ilarak zituzten bideak ebakuatzea eta abar izan da.

Ildo horretan, eta funtsezko izaerarekin, osasun larrialdietarako ibilgailuen, suhiltzaileen, egokitutako garraio bereziaren eta abarren zirkulazioa ziurtatzen saiatu gara. Horretarako, nekazariek erantzukizuna har dezatela eskatu dugu, eta ibilgailu horiei lagundu diegu, mozketak ireki ditugu, ebakuazio bideak ezarri ditugu eta zirkulazio segurua bermatu dugu, ahalik eta denbora gutxienean.

Bestalde, esan behar da egoera ez dela berdin mantendu denboran zehar, baizik eta otsailaren 6an mobilizazioak hasi zirenetik gaur arte aldaketak izan direla ekintzen dimentsioari eta intentsitateari dagokionez, monitorizatzen joan diren gorabeheretatik ondorioztatzen den bezala. Balantze honen eranskin gisa jaso da gorabeheren zerrenda.

Aipatzekoa da lehen egunetan auto ilarak, trafiko motela eta mozketak izan zirela Nafarroako errepideetako hainbat puntutan, eta ibilgailu pilaketa handia izan zela Lizarran, Tafallan eta Iruñeko ingurabidean, besteak beste.

Bereziki esanguratsua izan zen otsailaren 7an A12 autobia moztu izana. Ia 24 orduz egon zen moztuta, eta hurrengo egunean traktoreen martxa masiboa abiatu zen Iruñerantz. Era berean, eragin handia izan zuen Iruñeko ingurabideetan.

Otsailaren 8an, ostegunean, Iruñea izan zen protestaren erdigunea. Hara joan ziren Nafarroako hainbat tokitatik zetozen traktoreak. Besteak beste, toki hauek izan zituzten gorabehera gehien: N-121, Iruñeko ingurabidea, Lizarra, Sunbilla eta Tutera.

Traktoreetako asko Iruñeko kale nagusietan geratu ziren gaua pasatzen, eta, horregatik, ostiral arratsaldera arte itxi zen trafikoa.

Ekintza horien aldi berean, nekazarien elkarteek, mugimenduaren ordezkariek eta Nafarroako Gobernuak bilerak egin zituzten.

Foruzaingoa elkarlanean aritu zen Iruñeko Udaltzaingoarekin eta Polizia Nazionalarekin blokeatutako eremuak segurtatzeko eta garraio publikoaren eta larrialdien zirkulazioa bermatzeko. Hori lortu zen, nahiz eta gainerako herritarrentzat nahasmendu handiak izan.

Protesten bigarren astean, nekazariak hainbat bide puntutan bildu ziren, besteak beste, Noaingo Talluntxe industrialdean, N-121-A errepidean edo Cascanten. Horrez gain, kolapso puntuala egon zen Tuterako zenbait kaletan. Halaber, auto-ilarak sortu ziren Iruñeko ingurubideetako puntu batzuetan.

Aipatzekoa da zenbait egunetan Nafarroako Volkswageneko sarbideetan izan zela protesta. Txanda aldaketak eta hornidura katea oztopatu zituzten.

Denbora horretan, Foruzaingoak etengabeko harremana izan zuen lantegiko segurtasun zerbitzuekin, koordinatze aldera eta sartzeko eta irteteko bideak bermatze aldera.

Era berean, aipagarria da Nafarroako autobia edo A-15a moztu zela, otsailaren 29ko arratsaldean, 35-45 minutuz, eta auto-ilara handiak sortu zirela.

Aipatzekoa da tentsio handiena martxoaren 7an izan zela. Nekazari talde bat Nafarroako Parlamentuaren egoitzara indarrez sartzen saiatu zen, eta Foruzaingoak sarrera galarazi zien.

Gatazkak izan dituen faseetan zehar, Foruzaingoak erabilitako baliabideak lortu nahi zen helburura egokitu ditu; hau da, kasu batzuetan, bide segurtasuna bermatzea, beste batzuetan, industria ekoizpena geldiaraztea eragoztea edo, azkenik, Nafarroako Parlamentuaren egoitzara indarrez sartzea saihestea.

Oro har, esan daiteke helburua bete dela kasu bakoitzean, Nafarroako biztanleriak jasandako aldaketak alde batera utzi gabe.

Aipatzekoa da manifestatzeko eskubidea erabiltzen denean aldaketa jakin batzuk bizitzen dituztela gainerako herritarrek. Hala ere, hori lege-

aren barruan eta dagokion jakinarazpenarekin egiten bada, ondorio horiek minimizatzeko neurriak aurreikusten ahal dira.

Nekazarien kontzentrazio, martxa motel, mozketa, manifestazio eta ekintza gehienak legezko aurreikuspenak bete gabe egin dituzte. Mobilizatzeko modua dela-eta, manifestatzeko eskubidea eta gainerako herritarren eskubideak bateragarri egiteko jarduketak ezin izan dira aurreikusi eta planifikatu, eta horrek zaildu egin du egoeraren kudeaketa. Horren aurrean erabakiak berehalakoan hartu behar izan dira.

Dena den, nahiz eta presio eta ziurgabetasun handia izan, erabakiak azkar eta eraginkortasunez hartu dira, eta bitartekoak egoeretara egokitu dira kasu bakoitzean.

I. ERANSKINA. FORUZAINGOAREN AGINTARITZA ETA KOORDINAZIO ZENTROAK MONITORIZATUTAKO GERTAKARIEN ETA EGINDAKO JARDUKETEN ZERRENDA.

Gertakariak Informazio eta Koordinaziorako Zentro Iraunkorrak adierazitako tipifikazioaren arabera eta ordena kronologikoan islatzen dira. Laburduren aurkibidea:

TBSA: Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloa

EHBN: Foruzaingoaren Esku Hartzeko Brigada Nagusia.

EKZ: Ekintzen Koordinaziorako Zentroa

PKN: Polizia Kidego Nazionala.

ZZO: Guardia Zibilaren Zerbitzuen Zentro Operatiboa.

TZO: Guardia Zibilaren Trafikoko Zentral Operatiboa.

KN: Komisario nagusia.

EK: helikopteroa.

GZ: Guardia Zibila.

NG: Nafarroako Gobernua.

IK: Ikuskatzailea.

K: Ibilgailu kamuflatua.

HL: Herri lanak.

FZ: Foruzaingoa.

PJ: Polizia judiziala.

UZ: Udaltzaingoa.

UZ: Udaltzaingoa.

HS: Herritarren segurtasuna.

BS: Bide segurtasuna.

EHU: Polizia Nazionalaren Esku Hartzeko Unitatea.

VW: Volkswagen.

**Eguna: 2024ko otsailaren 6a**

**Errepide mozketak.**

07:06.- Kolapsoa dago Itaroa biribilgunean, PA-30 errepideko 8. KPan. Patruilak trafikoa desbideratzen ari dira. 07:11.- Zirkulazioa hasi da iparralderantz.

07:14.- Kolapsoa dago Gazpi biribilgunean, PA-30 errepideko 0 KPan, Taxoaren.

07:22.- Mozketak berretsi dira PA-30 errepideko 0 eta 8 KPen artean, iparralderantz. 07:26.- Zirkulazioa moztu da PA-30 errepidean, 15. KPan, bi noranzkoetan, Iruñan.

07:26.- Mozketa dago PA-30 errepidean, 8. KPan, Itaroa biribilgunean, Uharte-Iruñan, bi noranzkoak txandakatuz.

07:33.- Kolapsoa dago A-12 errepideko irteeretan, 39. KParen parean, NA-132 errepidearekiko elkargunean, Lizarrako irteeran eta 36. KPan, Villatuertako irteeran.

07:40.- Auto-ilarak daude puntu horietan.

07:57.- Auto-ilarak daude puntu horietan. GZ bertaratu da. 08:10.- Kolapsoa dago Villatuertako industrialderako sarreran.

07:36.- Kolapsoa dago Cinfa biribilgunean, PA-30 errepideko 9. KPan, Ollokin, beheranzko noranzkoan. 07:40.- Kolapsoa dago PA-31 errepidean, aireportura sartzeko bidean, Noain-Iruñan.

07:49.- Kolapsoa dago Decathlongo aireko biribilgunean, Iruñean. Kolapsoa eragin du PA-34 errepidean.

07:57.- Kolapsoa dago AP-15 errepideko 50. KPko irteeran, N-121 errepiderako sarreran, Tafallan. 09:09an irteera kolapsatuta dago.

07:57.- Kolapsoa dago NA-127 errepidean, 0 eta 2 KPen artean, Zangozan.

08:05.- Moztuta dago Decathlongo aireko biribilgunea, Iruñan. Ezin da PA-30 errepidera sartu.

08:17.- 5 km luzeko auto-ilarak daude PA-30 errepidean, 0. eta 5. KPen artean, beheranzko noranzkoan, Noain eta Aranguren herrietan.

08:26.- Kolapsoa dago NA-126 errepidean, 2. KPan, NA-134 errepidearekiko elkargunean, 3,500 kilometroan, Tuteran.

08:32.- Kolapsoa dago Azkoiengo biribilgunean. GZ arduratu da. NA-115 eta NA-128 errepideen arteko elkargunea.

08:33.- Mozketa dago N-121 errepideko 57. KPan, Caparroson.

10:09.- Zirkulazioaren kolapsoa dago Ofitas biribilgunearen (PA30; 19,400 KPa) eta Eroskira sartzeko aireko biribilgunearen (PA-34) artean. Iruña.

10:14.- Traktoreak daude geldirik NA-1110 errepideko 41.500 KPko biribilgunean, Iratxeko urbanizazioaren hegoaldeko sarreran, galtzadan, 20 eta 30 pertsona inguru. Esku Hartze Dibisioko patruilak bertaratu dira.

11:43.- Poliziak esku hartu ondoren, Iratxeko hegoaldeko sarreran bidea okupatzen ari ziren traktoreak Aiegirantz abiatu ziren. Ibilgailuak identifikatu dira.

13:04.- Kolapsoa dago N-121-A errepidean, Olabe eta Arre herrien artean, bi noranzkoetan.

13:24.- Traktoreak zirkulatzen ari direla jakinarazi da, 8. KParen parean, bi erreietan, iparralderantz.

13:40.- Bidea moztuta dago, bi noranzkoetan, 9. KParen parean.

13:54.- N-121-A errepideko 6. eta 14. KPen artean trafikoa geldirik dagoela jakinarazi da.

13:53.- Kolapsoa dago PA-30 errepideko 10 eta 13 KPen artean, Esteribar eta Arre herrietan. 150 traktore inguru daude inguruan.

14:37.- Kolapsatuta jarraitzen du.

15:20.- EHBNk jakinarazi du 12 traktore gelditu direla Iruñerako noranzkoan, N-121-A errepideko trafikoa arintzeko.

13:30.- Tafallako zeharbidea kolapsatuta dago 15 traktore daudelako geldirik. Esku Hartze Dibisioa bertaratu da.

13:51.- Kolapsoa dago Lizarrako sarreran NA-1110 errepideko 36. KPtik.

14:12.- Mozketa dago Areta industrialdera sartzeko Sarrerako biribilgunean, NA-2300 errepideko 0 KPan, Uharte-Iruñan. Esku Hartze Dibisioa bertaratu da.

19:55.- Trafikoa moztuta dago A-12 errepidean 39. KPan, Iruñerako noranzkoan. Villatuerta parean.

**Ibilgailuen martxa motelak.**

06:21.- Traktoreak motel ari dira zirkulatzen PA-30 errepideko 8. KParen parean, Iruñeko ingurabidean, hegoalderantz.

06:30.- Traktoreak kontzentratu dira Talluntxe industrialdean, Noainen, PA-30 errepidean sartzeko asmoarekin. 06:44an, 20 traktore inguru daude. GZ bertan dago.

06:35.- Trafikoa motel doa A-15 irteerako biribilgunean, NA-150 errepiderantz, Irunberriko noranzkoan. 06:52.- Trafikorik ez dagoela jakinarazi da.

07:06.- Trafikorik ez dagoela jakinarazi da.

07:36.- Zirkulazio arina.

06:46.- Herri Lanek traktoreak daudela jakinarazi dute PA-30 errepideko 18. KPko biribilgunean. Gipuzkoa etorbidean sartzeko zailtasunak daude, Iruñerako bidean.

06:59.- Traktoreak kontzentratzen hasi dira N-121 errepidean, Tafalla eta Erriberri artean. 07:11.- Trafikoa motel doa traktoreen zirkulazioagatik, bide horretako 36 eta 39 KPen artean.

07:21.- Auto-ilarak daude Tafallako iparraldeko sarreran, N-121 errepidetik.

07:22.- Traktoreak zirkulatzen ari dira NA-128 errepidean, Caparrosorako noranzkoan. Zirkulazioa moteldu dute. 07:44.- Trafikoa motel doa NA-128 eta N-121 errepideetan.

07:44.- Audenasak jakinarazi du auto-ilarak daudela A15 errepideko 85. KPan eta seinaleztatzen ari direla. AP-15 errepidearen gainerako tarteak, ondo.

07:46.- Auto-ilarak daude traktoreen trafikoagatik, A-21 errepideko 34. irteeran, Venta de Judasen, Ledearaino.

08:18.- Auto-ilarak daude AP-15 autobidean, 86. KPan, hegoalderantz. Zizur.

08:18.- Auto-ilarak daude A-12 eta A-15 errepideen arteko elkargunean, hegoalderantz. Zizur. Audenasa seinaleztatzen ari da.

08:19.- Auto-ilarak daude NA-134 errepidean, Azagra eta San Adrian artean. 08:20.- Auto-ilarak daude NA-125 errepidean, 5. KPan, Cabanillasen.

08:22.- Auto-ilarak daude AP-15 errepidean, Tafallako hegoaldeko irteeran. Audenasako zaintaldea elkarlanean ari da patruilarekin.

08:33.- Auto-ilarak daude NA-160 errepidean, 3. KPan. Tutera.

08:43.- Auto-ilarak daude N-121 errepidean, Tafallako iparraldeko sarreran. 08:48.- 42. KPan kolapsoa dagoela jakinarazi da.

08:47.- Traktoreak Tuterako hirigunean sartzen ari dira, Zaragoza etorbidetik. 08:52.- N-113 eta

NA-160 errepidetik datozen traktore ilarak elkartu dira Tuteran.

08:57.- Villatuertatik datozen traktore ilarak Tuteran sartzen ari dira, NA-1110 errepidetik. Lizarrarako sarrerak, kolapsatuta.

08:59.- Trafikoa geldirik dago NA-122 errepidean, 4. KPan, Lizarrarako noranzkoan. 09:05.- Auto-ilarak daude NA-1110 errepidean, 37. KPan, Lizarran.

09:07.- Auto-ilarak daude Zangozako NA-127 errepideko 2. eta 2.7. KPen artean 30 traktore inguruaren zirkulazioagatik. Trafikoa zaintzen ari dira GZrekin elkarlanean.

09:13.- Trafikoa zaintzen ari dira PA-30 errepidean, 18. KPan, GZrekin elkarlanean. Artika-Berriobeiti.

09:15.- Auto-ilarak daude Erriberriko iparraldeko biribilgunean, N-121 errepideko 38.500 KPan.

09:19.- Traktoreak Lizarrara sartzen ari dira NA-132-A errepideko 1. KPtik, Merkatondoa.

09:22.- Trafikoa zaintzeko lanak egiten ari dira NA-160 errepideko 15. KPan, NA-6801 errepiderantz, N-113 errepidean sartzea saihesteko. Cintruénigo.

09:22.- Zortzi traktoreko ilara dago N-240-A errepideko 17. KPan, Irurtzundik Iruñerako norabidean. Eskolta eman zaie Berriozar herriraino.

09:37.- Traktoreengatik trafikoa motel doa N-121 errepidean, Tafalla eta Arrizabalaga herrien artean, herriko biribilgunean buelta emanez. 11:31n bidea irekita dagoela jakinarazi da.

09:48.- Trafikoak eragina jasan du NA-1110 eta NA-132 errepideen elkargunean traktore bat matxuratu delako. GZ seinaleztatzen ari da.

10:25.- Auto-ilarak daude PA-30 errepidean, 1. eta 4. KPen artean, Taxoaretik Mutiloarako irteeren artean.

10:54.- Traktoreak daude PA-30 errepidean, Itaroa inguruan. NA-150 errepidetik doaz, Agoizko noranzkoan. Ilara Eguesko industrialdean dago, Ubarmin klinikako sarbideak kolapsatu ondoren. 11:34an trafiko arina dagoela jakinarazi zen, PA-30 errepidean, Itaroa inguruan.

10:57.- Traktoreen ilara Tafallan sartzen ari da iparraldeko sarreratik, N-121.

10:58.- Geldirik dauden traktoreak kontzentratu dira N-111 errepideko 84. KPan, Vianan. Hamaiketakoa egiten ari dira bidetik kanpo, trafikoa eten gabe.

11:41.- Traktoreen ilara bat Erriberriko noranzkoan ari da zirkulatzen, N-121 errepideko 47. KParen parean.

11:42.- Eguesko industrialdean zegoen traktoreen ilara (10:54ko oharrak), Iruñerantz mugitzen hasi da. 12:21.- Aurreko puntuetan aipatutako traktoreen ilara N-121-A errepidera igaro da, Arre herritik.

12:40.- Traktore ilara batek auto-ilarak eragin ditu N-121 errepideko 41. KPan, Erriberrin.

12:46.- Traktoreen ilara bat dago (10) P-31 errepidean, Iruñean, hegoalderantz. Paraleloan zirkulatu ondoren, polizia-ibilgailua ikustean, eskuineko erreia bakarrik hartu dute.

12:50.- NA-8703 errepidetik doan traktoreen ilara N-134 errepidean sartu da. Bertaratu den patruilak 106 traktore daudela jakinarazi du, eta Valtierratik datozenekin elkartuko direla uste dutela; baliteke beste 100 izatea horiek.

13:02.- Traktoreen ilara bat dago (30) PA-30 errepidean, Gazpi eta Talluntxe biribilguneen artean, Taxoaren eta Noainen.

13:26.- Zirkulazioa motela da PA-30 errepideko 10. KPan, Miravalles gainean, Esteribar herrian. 14:09.- Auto-ilarak daude AP15 errepidean, 83. KPan, Noainen.

14:11.- Auto-ilarak NA-129 biribilgunean, 13. eta 14. KPen artean. 27 traktore daudela dirudi. Los Arcos. GZrekin elkarlanean.

15:58.- San Adriángo UZk trafikoa motel doala dio traktoreak daudelako NA-134 errepidean, Andosilla eta Egako zubiaren artean.

16:18.- Auto-ilara dago N-232 errepideko 83. KPan. Probintziako muga, Buñuel. Patruila seinaleztatzen ari da.

16:39.- Auto-ilarak daude A-68 errepidean, bi noranzkoetan. Traktoreak NA-134 errepidetik autobiara sartu dira.

16:52.- Trafikoa oso motela da NA-127 errepidean, Ledea eta Zangoza artean. 35 bat traktorek martxa moteldu dute.

16:58.- Traktoreak autobiara sartu dira A-12 errepideko 40. KPan Los Arcos inguruan.

18:17.- Jakinarazi da traktoreak une honetan Iruñeko erdigunean kontzentratzeko bidean doazela.

18:17. - N-121-A errepideko patruilek Iruñera doazela baieztatu dute.

18:21.- Patruilak 145 traktore daudela jakinarazi du, N-121 errepidean, Murchanten. 18:32.- Traktoreak kendu dira Zangoza aldetik.

18:45.- Zirkulazioa oso motela da A-12 errepideko 39-40 KPetan, Villatuerta parean.

18:51.- Trafikoa oso motel doa traktore asko daudelako N-121 errepideko 54 Kpan, Caparroso parean. Trafiko-arazoak daude bi noranzkoetan. 100 traktore inguru daude bidean, bi noranzkoetan ari dira zirkulatzen eta trafikoa asko moteldu dute.

19:08.- NA-128 errepideko 8. KPa. Traktore talde ugari ari dira zirkulatzen Martzillara bidean. Trafikoa moteldu dute.

19:25.- Trafikoa oso motel doa N-12-A errepideko 7. eta 18. KPen artean, Orikain eta Olabe artean. 50 traktore inguru daude. 20:00.- Traktoreak daude bidean, N-132 errepideko 1,5 KPan.

20:22.- Traktoreak kendu dira N-132 errepideko 1,5. KPtik.

20:27.- TZOk jakinarazi du bidean ez dagoela traktorerik A- 12 errepidean.

21:46.- Zirkulazio librea N-121-A errepidean. Dena garbi.

**Azpiegituren blokeoak (portuak, merkak, logistika zentroak, etab.).**

06:03.- ACCIONA enpresaren sarrera blokeatu da Irunberrin. GZ ere bertaratu da. 07:40.- Kolapsoa dago PA-31 errepidean, aireportura sartzeko bidean.

12:17.- Bide segurtasuneko patruilak analitikak garraiatzeko osasun-ibilgailua lagundu du Lizarran, NA-132-A errepideko sarreratik, Merkatondoatik, García Orcoyen ospitalera.

19:25.- AP-15 autobidean, Alesbes parean, 19,275 KPan, traktore gurpilak, burko bustiak eta gasolio bidoiak daude, autopistan zintzilikatuak, botatzeko.

**Eguna: 2024ko otsailaren 7a.**

**Errepide mozketak.**

07:44.- Errepidea moztu da Lizarrara NA-1110 errepideko 33. KPtik sartzeko biribilgunean, traktoreak eta kamioiak daudelako. Esku hartzeko patruila tartean da, eta 08:10ean ireki da. 08:13an berriz moztu da, eta 08:36an ireki da.

09:58.- Mozketa dago A-12 errepideko 77. KPan Logroñorako noranzkoan, traktoreak daudelako.

10:00.- Mozketa dago A-68 errepideko 106. KPan, traktoreak eta kamioiak daudelako. Bi noranzkoak. 10:09an ireki da.

11:17.- Mozketa dago NA-115 errepideko 18. KPan, 40 bat traktore daudelako. Bi noranzkoak. Bide segurtasuneko patruila seinaleztatzen ari da.

11:56.- Mozketa dago NA-121 errepideko 38. KPan, 20 bat traktore daudelako. Bi noranzkoak. Bide segurtasuneko patruila seinaleztatzen ari da.

12:17.- Mozketa dago NA-1110 errepideko 56. KPan, 20 bat traktore daudelako. Mozketa dago biribilgunean.

12:28.- Mozketa dago N-129 errepideko 14. KPan, 30 bat traktore daudelako. Mozketa dago biribilgunean. Aurreikuspenen arabera, 30 minutu inguru egonen dira. 13:01ean ireki da.

14:05.- Tafallako hegoaldeko irteera garbi.

14:14.- A12 errepidean Villatuerta parean: autobidea moztuta dago, hainbat traktore daudelako gurutzatuta. Gidariek alde egin dute.

15:06.- Bidea erabat moztuta dago A-12 errepideko 38. KPan, bi noranzkoetan. 15:07.- Bidea erabat moztuta dago N-1110 errepideko 56. KPan.

15:48.- Erabateko mozketa dago N-121 errepideko 43. KPan, bi noranzkoetan.

17:49.- Bidea erabat moztuta dago Los Abetos bidegurutzean. N-121 eta NA-134 bideak. Valtierra. 19:13.- Los Abetos bidegurutzea ireki da. N-121 eta NA-134 bideak

19:20.- Ordu horretan, A-12 errepidea baino ez dago moztuta, 36. eta 44. KPen artean. Nafarroako gainerako bideek ez dute traktore edo oztopo handirik.

**Ibilgailuen martxa motelak.**

07:25.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Tafallan sartu dira N-121 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. 07:43an eta 08:09an informazio bera jaso da.

07:32.- Trafikoa moteldu egin da Lizarran, Merkatondoa industrialdeko sarreran, A-12 errepidetik irteteko biribilgunea blokeatu egin delako.

07:32.- Traktoreen ilara trafikoa moteltzen ari da Tafallako zeharbidean.

07:53.- Kolapsoa dago N-121 errepideko tarte batean traktoreak zirkulatzen ari direlako, Mélida herriko biribilgunetik Caparrosora.

08:06.- Trafikoa moteldu egin da A-12 errepidetik Villatuertako industrialdera doan irteeran, 32. KPan.

08:08.- Zirkulazioa oso motela da PA-30 errepidean, Decathlon eta Artika biribilguneen artean, bi noranzkoetan traktoreak daudelako.

07:25.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Tafallan sartu dira N-121 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. 07:43an eta 08:09an informazio bera jaso da.

08:03.- Trafikoa geldirik dago traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Tafallan sartu dira AP-15 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. BS patruila eta Audenasa auto-ilara seinaleztatzen ari dira.

08:44.- Trafikoa geldirik dago Martzillako zeharbidean, N-128 errepideko 4.1 KPan, hegoaldeko sarreran, AP-15 errepiderako sarbidean traktoreak daudelako.

08:44.- Trafikoa motel doa eta kolapsoa dago, traktoreak ilaran ari direlako zirkulatzen, A-30 errepideko 20. KPan. Errail bat bakarra dago erabilgarri.

08:49.- Trafikoa motel doa traktore ilara bar zirkulatzen ari delako, iparraldeko noranzkoan, N-121 errepidean, 47. PKan.

08:58.- Trafikoa moteldu egin da eta uneka geldirik dago, traktore ilara bat zirkulatzen ari delako NA-134 errepidetik, Azagratik Andosillara.

09:08.- Trafikoa moteldu egin da eta uneka geldirik dago, Lizarrako erdigunean. NA-1110 irteera Aiegi herrirantz, garbi.

09:10.- Simaurra isuri da nahita NA-30 errepidean. FZ patruilak HLren garbiketan lagundu du. 09:17.- Trafikoa motel doa NA-134 errepidean, N-113 errepidean traktoreak daudelako. Patruila auto-ilara seinaleztatzen ari da.

09:24.- AP-15 errepideko 50. KPko irteera, Tafallarantz doan hegoaldeko irteera moztuta dago, sarrerako biribilgunea saturatuta dagoelako. 09:28an berriz ireki da.

09:47.- Trafikoa motel doa, NA-6001 errepidean, AP-15 errepidearen parean, 15 bat traktore motel ari direlako zirkulatzen. Patruila auto-ilara seinaleztatzen ari da.

10:10.- Trafikoa motel doa, A-12 errepideko 40. KParen parean, 15 bat traktore motel ari direlako zirkulatzen. Patruila auto-ilara seinaleztatzen ari da.

10:45.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Tafallan sartu dira N-121 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. 30 inguruko ilara herrigunera doa. Tafallako UZri jakinarazi zaio.

11:19.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako, N-121 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. 30 inguruko ilara herrigunera doa. Tafallako UZri jakinarazi zaio.

11:27.- Trafikoa motel doa 50 traktore inguruko ilara bat zirkulatzen ari delako, N-121 errepidetik, iparralderako noranzkoan.

11:40.- Kolapsoa dago PA-30 errepideko tarte batean traktoreak zirkulatzen ari direlako, 19.5. KPan, Ofitas biribilgunean.

11:57.- Trafikoa motel doa 15 traktore inguruko ilara bat zirkulatzen ari delako; A-12 errepidetik atera dira NA-1110 errepiderantz, Villamayor de Monjardín parean.

12:24.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako, Rocaforte industrialdetik.

12:27.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Patruilak ibilgailu bat lagundu du García Orcoyen Ospitalera, erditzeagatik.

12:52.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Patruilak ibilgailu bat lagundu du García Orcoyen Ospitalera, erditzeagatik.

12:56.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako, N-121 errepidetik, hegoaldeko sarreratik. 60 inguruko ilarak Noaingo herrigunea zeharkatzen du.

13:10.- VW enpresara sartzeko kanalizazioa. Trafikoa motel doa, baina ez dago geldirik. Txanda berandu egin da, beste gorabeheraRik gabe

13:33.- Kolapsoa dago NA-1110 errepideko tarte batean traktoreak zirkulatzen ari direlako, Aiegitik Lizarrarako sarreran. 13:41.- Trafikoa motel doa traktore ilara bat zirkulatzen ari delako. Arlasko bentara joan dira depositua betetzera.

14:40.- Traktoreak daude PA-30 errepidean, Ipertegi eta Orkoien industrialdeen artean (oraingoz ez dira A-15 errepidera atera)

14:44.- Traktoreak oso motel ari dira zirkulatzen NA-134 errepideko 48-51 KPetatik eta trafikoa moteltzen ari dira. 14:50.- 40 bat traktore trafikoa blokeatzen ari dira NA-127 errepideko 0-4 KPetan.

16:30.- NA-127 errepidea libre dago orain. Traktoreak gelditu eta gidariak bazkaltzera joan dira.

16:32.- Traktore ilera bat doa PA30 errepidetik, Ofitasen biribilgunerantz. Patruilak jakinarazi du posible dela horiek Iruñean sartzea. EKZri jakinarazi zaio. Ofitas biribilgunearen eta Berriozar biribilgunearen artean ari dira zirkulatzen.

16:35.- 40 traktoreko ilara bat ari da zirkulatzen N-128 errepidetik, AP-15 errepiderako norazkoan.

16:38.- PA-30 errepideko 0-2 KPak, Noain. Traktore ilara bat motel ari da zirkulatzen. 16:41.-

NA-122 errepideko 5 KPa, Aberin. 40 bat traktoreko ilara bat Lizarrarantz doa.

16:51.- EK-k jakinarazi du trafikoa geldirik dagoela Mutiloa industrialdean. Lotura du PA-30 errepideko 0-2 KPetako kontuarekin.

17:06.- NA-134. 90 traktore inguru atera dira Tuteratik Arguedaserantz. 17:12.- Traktore ilara bat A68 errepidean sartu da N-232 errepidetik.

17:30.- Trafikoa geldirik dago PA-30 errepidean, 18. KPan, Antsoainen.

22:53.- NA-743 errepideko 3. KPan (Cabredo), zirkulazioa oztopatzen duten zenbait lasto fardel utzi dira nahita galtzadan. Lizarrako HS patruilak 23:35ean kendu ditu oztopoak.

**Azpiegituren blokeoak (portuak, merkak, logistika zentroak, etab.).**

21:09.- Trafiko ikuskatzaileak jakinarazi du traktoreak daudela Volkswagen inguruan. NA-30 errepidean auto-ilarak sortu dira.

21:57.- Traktoreak kendu eta Volkswagen ingurua libre geratu da.

**Eguna: 2024ko otsailaren 8a.**

**Errepide mozketak.**

07:05.- A-12 errepidea moztuta dago oraindik, 36 KPtik 44 KPraino (Villatuerta eta Iratxe artean). HLk seinaleztatua.

08:12.- Mozketa dago A-12 errepideko 37,5 KPan, iparralderantz (70 traktore). N-132 errepidean, Villatuertako biribilgunean 10 bat traktore daude kontzentratuta; ez dute kolapsorik eragin.

08:26.- Trafikoa kolapsatuta dago N-121 errepideko 54. KPan, Caparroson. GZ bertaratu da. 20 minuturo mozketak egiten ari dira 10:00ak arte.

08:53.- N-121 errepideko 38,4 PKa. Erabateko mozketa Los Abetos bidegurutzean (Valtierra). GZk 30'-ko mozketa egin du.

**Ibilgailuen martxa motelak.**

07:38.- Merkatondoa industrialdea, Lizarran. Traktoreen kontzentrazioa martxan jarri da. 07:39.- Traktoreen kontzentrazioa dago PA-30 errepidean, Talluntxe industrialdean. ZZO dispositiboa bertaratu da. 09:02.- Auto-ilarak seinaleztatu dira AP-15 errepideko 50. KPan.

09:03.- Auto-ilarak daude N-121-C errepideko 4. KPan, Tarazonarako noranzkoan. Auto-ilarak daude 6. KPan, Tuterako noranzkoan. Ilara FZ komisariara iritsi da. EHUk ez die jarraitzen utzi. Tuterako UZri jakinarazi zaio.

09:08.- Traktoreak (40) daude N-150 errepidean, Itaroa sarreran. 09:26.- Trafikoa motel doa A-12 errepideko 40. KPan. 100 traktore Iruñerako noranzkoan ari dira zirkulatzen.

09:26.- EK-k 30 traktore daudela jakinarazi du, N-121 errepidean (Barasoain), Iruñerako noranzkoan. Beriaingo La Morea industrialdean sartu dira. FZ negoziatzailea bertaratu da.

09:52.- 150 traktoretik gora doaz A-12 errepidetik, iparralderantz. Ilararen hasiera Ziraukin dago eta amaiera Villatuertan. HLk auto-ilara seinaleztatu du. TZOk jakinarazi du 300 traktore daudela, eta A-15etik A-12rako sarbideak moztuko dituela.

10:09.- EK-k jakinarazi du GZk gelditu egin duela A-12 errepidetik doan traktore ilara, 20. KParen parean. Zirkulazioa geldirik dago.

10:20.- 35 traktore bazkaltzen dari dira N-121-A errepideko 11. KPko Lorenzo jatetxean. FZ negoziatzailea bertaratu da.

10:30.- N-113, Los Abetos. GZk eskolta eman dio 40 traktoreko martxa bati, hegoalderantz. Villa de Castejón hotelera doaz, abiadura txikian.

10:39.- NA-134, 52. PK. Biribilguneko trafikoa moztu da San Adrianetik Andosillara. 10:46.- N-121-C. Zirkulazioa normaltasunera itzuli da.

10:52.- Traktoreen ilara dago N-121-A errepidean, Lorentxon. Enderitzerantz joanen dira eta tarte horretan karrusel bat eginen dute.

10:54.- Zizurko FZ, GZ eta UZ goi agintariak traktore ilararekin harremanetan jartzen saiatzen ari dira, Zizurko Ardoi industrialdean sar daitezen.

11:13.- Patruilak jakinarazi du traktore ilara dagoela PA-30 errepidean, hegoalderantz. GZren laguntza dute. 11:03.- 20 traktore inguru doaz N-121-A aldera, Irungo noranzkoan, Oronoztik. GZren laguntza dute.

11:06.- N-121 errepideko traktore gidari batekin negoziatu ondoren, 6 Iruñeko Zaragoza etorbideko eskuineko erreitik joanen dira Foruen plazaraino (UAGN), eta bira emanen dute. Gainerakoak PA-30 errepiderantz desbideratuko dira, iparralderantz. EKZri horren berri eman zaio.

11:25.- San Adriángo UZri laguntza eman zaio. Laguntza eskatu du, larrialdi mediko bat dela-eta bidea irekitzeko.

11:22.- Patruilak auto-ilara seinaleztatu du N-121-A errepidean. GZ traktoreen martxa inguratzeaz arduratuko da.

11:27.- Negoziazioaren ondoren, N-121-A errepideko 6 traktorek eskuineko erreitik zirkulatuko dutela erabaki da. Iruñera Beloso aldapatik sartuko dira, Merindades plazaraino, eta bira emanen dute. EKZri horren berri eman zaio.

11:39.- 20 traktore daude A-15etik Martzillarako irteeran. GZ bertaratu da.

11:41.- EK-k jakinarazi du GZk A-12 errepidea moztu duela Zizurren, GCk moztuta. Erabateko mozketa dago NA-1110 errepidean. 11:43.- N-121-A, 45. PK (Doneztebe-Sunbilla). Traktoreen ilara NA-1210 errepidetik desbideratu da.

12:07.- Traktore ilara bat biraka ari da N-121-A errepidean, 13. eta 9. KPen artean (Enderitz eta Soraurengo biribilgunea) eta 51. eta 48. KPen artean (Doneztebeko IAT biribilgunea eta Sunbillako iparraldeko irteera).

12:13.- EK-k jakinarazi du A-12 errepideko blokeoa desegin dela. Traktoreek Iruñerantz egin lezakete aurrera.

12:23.- Patruilak jakinarazi du ilara dagoela PA-30 errepidean, 1. KPan. GZren laguntza dute. 12:29.- Patruilak jakinarazi du ez dagoela trafiko arazorik A-15 errepidean.

12:35.- Patruilak jakinarazi du 25 traktore Yamaguchi hoteleko zelaigunera doazela. 12:36.- Kolapsoa dago NA-128 errepidean, Martzillan. Auto-ilara ez da iristen autobideraino.

12:44.- N-121-C errepideko 4. KPa oraindik itxita dago. Badirudi zirkulatu eginen dutela. PKNri horren berri eman zaio. Errepidea moztuta egon da 50 minutuz eta desbideratzeak egin dituzte. Traktoreak (40) 1 km-tan daude aparkatuta NA-6040 Murchanten, Tuterako noranzkoan.

13:05.- Traktore ilara bat (200) martxan hasi dira Zizurretik: AP-15, iparralderantz, Landabengo irteera, NA-30, Ofitas, PA-30, San Jorge, Nafarroa etorbidea, Oliva monasterioa, Belate, Baiona etorbidea, Armada etorbidea, Oliveto Kondea, Nafarroa Behereko etorbidea, Seminarioraino. Bertan, martxaren zati bat Burlatarantz joanen da eta beste zati bat Mendillorrirantz. GZren laguntza dute. EKZ eta PKNri berri eman zaie.

13:16.- Patruilak jakinarazi du 30 traktore inguru dabiltzala Taxoare kaletik. Nekazaritza Departamenturantz doaz. EKZri horren berri eman zaio.

13:20.- Ez dago auto-ilararik N-121 Soraurenetik Ezkabako tuneletaraino

13:28.- NA-127 errepidea, 0,1. KPa. Zirkulazioa kolapsatuta dago Ledeako elkargunearen eta Zangozako paper fabrikaren artean.

13:40.- N-121-A errepideko 45. KPa eta NA-1210 errepidea. Trafikoa geldirik dago.

14:09.- N-240-A errepidea, 10. KPa. Traktoreak geldirik daude Añezkar aldapan.

14:19.- N-121-A. Auto-ilarak daude Sunbillan, 10 kilometrokoak, hegoalderantz, 45. eta 55. KPen artean. Ertzaintzari horren berri eman zaio. GZk FZ txandakatu du, bidearen urteko banaketaren arabera.

14:21.- Iruñeko UZk jakinarazi du 15 traktore Zaragoza etorbidetik ari direla zirkulatzen, Beriainerako noranzkoan.

14:29.- NA-160 errepideko 1,2. KPa. FZk laguntza eskatu dio Tuterako UZri. Traktoreek bertan eman dute bira Cintruénigo-Tutera ibilbidean.

15:24.- 15 traktore inguru daude NA-127 errepidearen eta NA-5410 errepidearen arteko elkargunean.

15:36.- Traktoreak aparkatuta daude Landabenen eta traktore gidariak bazkaltzen ari dira San Jorgen. 16:41.- NA-128 errepidea, 11. KPa. 15 traktorek eragindako auto-ilara seinaleztatu da.

16:54.- Patruilak 20 traktore daudela jakinarazi du Talluntxe industrialdean.

16:54.- EK-k 50 traktore daudela jakinarazi du, PA-31 errepidean, Noainerako noranzkoan. Eta Ezkirotzetik zihoan traktore ilara Nafarroa etorbidearen eta Iturrama kalearen artean dagoela.

17:23.- 60 traktorek kolapsoa eragin dute Villa Marcilla hotelean.

17:35.- PA-31 errepideko traktoreak N-121 errepidean daude (Campanas). GZren laguntza dute.

17:45.- Iruñetik atera diren 12 traktore lagundu eta inguratu dira. Lizarrarako noranzkoan doaz A-15, A-12 eta NA-1110 errepideetatik.

18:14.- 30 traktore lagundu dira A-15 eta A-12 errepideetatik NA-1110 errepidean sartu arte, Lizarrarantz.

18:35.- 10 traktoreko talde bat NA-30 errepidetik doa, AP-15 errepiderantz. Seinaleztatzera eta laguntzera joan dira.

18:36.- 7 traktoreko talde bat Pañuelicora (Cordovilla) bidali da, Lizarrara bide lasterretatik itzul daitezen kudeatzeko.

18:51.- EKZk jakinarazi du traktore talde handi bat —ez dakite zenbat— doala Armada etorbide-

tik, Yanguas eta Miranda kaletik, Zaragoza etorbidetik eta Pañuelicotik. 40 bat traktoreri lagundu zaie A-15 eta A-12 errepideetatik. Tafalla aldera doazen 10 bat traktorez arduratu da GZ.

19:10.- Trafikoa geldirik dago PA-30 errepidean, 12. KPan (4 traktore). Auto-ilara seinaleztatu da. 19:27.- A-68 errepidea, 115 KPa. Trafikoa geldirik dago. Geroago normaltasunera itzuli da.

20:51.- Nafarroako Volkswagenen zaintza zerbitzuak traktoreak daudela jakinarazi du —ez du zehaztu zenbat— fabrikaren sarreran, PKNren EHU dagoen lekuan. Beste talde bat A-30 errepidetik doa, A-15 errepiderantz. Iruñeko BSk hartu du dispositiboaren ardura.

22:00.- FZ patruilek eskolta eman diete A-30 errepidetik A-15 errepidera zihoazen traktoreei. Ez dute gorabeherarik izan.

**Azpiegituren blokeoak (portuak, merkak, logistika zentroak, etab.).**

07:38.- Traktoreak (30-40) Nafarroako Gobernuko lehendakariak Gorraitzen egoitza duen inguruan sartu dira. EHBNko langile bat arduratu da. Errei bat dago erabilgarri. Gidariak kontrolpean daude. Egoera normalizatu da.

08:04.- Traktore gehiago sartzen dira Gorraitzen.

08:24.- Traktoreek alde egin dute Gorraitzetik.

17:05.- Jakinarazi da traktoreek Nafarroako Jauregira iritsi nahi dutela. EHBNk polizia hedatu du (3 talde). EHBNk jakinarazi du 12 traktore daudela. PKNren laguntza dute.

**Eguna: 2024ko otsailaren 9a.**

**Ibilgailuen martxa motelak.**

04:30.- Tafallatik 15 traktore inguru atera dira.

05:50.- Venta de Judasetik doazen eta NA-150 PK 30etik (Artieda) zirkulatzen ari diren 50 traktore lagundu dituzte Zangoza aldeko FZ patruilek.

06:30.- 60 traktore inguruko konboia dago Urrotz-Hirian (NA-150, 13. KPa). Eskolta eman diote GZk eta FZk.

06:32.- Lizarra aldean (A-12) ez da gorabehera aipagarririk izan. 07:01.- 4 traktore doaz Aiegitik Lizarrarantz.

